



**IRIZPEN ZK.: D18-014**

**ZENBAIT LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZA KUDEATZEKO, BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI ZERGA DATUAK KOMUNIKATZEARI BURUZKO IRIZPENA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** [...] Ogasun eta Finantza Sailak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkiak honakoa adierazten du:

*“[...] Ogasun eta Finantza Sailak zerga arloko datuak laga ohi dizkie hainbat administrazio publikori, administrazio publiko horiek eskumenak behar bezala betetzeko informazioa eduki dezaten. Baliabide elektronikoei buruzko 23/2010 Foru Dekretuaren 45. artikulua arautzen ditu datu transmisio horien betekizunak eta ondorioak.*

*Zerga arloko datuen tratamenduak baimendu eta auditatzeaz gain, Sailak gomendioak ematen ditu administrazio hartzaileak egokitu daitezen datu babesari buruzko araudira. Honi atxikita doaz Ogasun zuzendariaren hainbat gomendio adostasuna behar duten tratamenduetan hura nola eskuratu azalduz.*

*Azken urteetan asko hasi dira datu babesari eta administrazio elektronikoari ezarri beharreko arauak. Arau horien gainean egin diren interpretazioak ez dira beti baketsuak izan. Hori dela eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu behar dugu ondoko alderdien inguruan:*

**1- 39/2015 Legearen 28.2. artikulua eta Erregelamendu Orokorra.**

*Segidan transkribatzen dugun 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aurreikusten du isilbidezko adostasuna beharko dela administrazio batek beste administrazio batek egindako dokumentuak kontsultatzeko:*

...

...

*Beste alde batetik, Erregelamendu Orokorren 4.11 artikulua adostasunaren definizioa ematen du, baina ez du bere baitan hartzen isilbidezko adostasuna. Eta are argiagoa da Erregelamendu Orokorren 32. kontuan hartzekoak dioena adostasunari buruz: “...Beraz, isiltasunaren, aurretik markatutako laukitxoan edo jarduera-ezaren bidez ez da adostasunik adieraziko...”*

*Datu babesaren ezarpenean esku hartzen duten eragile juridiko batzuek interpretatu dute 39/2015 Legearen 28.2 artikulua isilbidezko adostasuna aipatzen duen arren, ematen duela aukera, tratamenduen legezkotasuna adostasunean oinarritu beharrean, interes publikoaren izenean oinarritzeko (Erregelamendu Orokorren 6.1e) artikulua). Datuak lagatzen dizkiegun administrazio batzuek antzeko*



interpretazioa egiten dute, eta uste dute ez dela adostasunik behar Ogasun eta Finantza Sailean dauden datu pertsonalak atzitzeko.

Eusko Jaurlaritzak esate baterako, 39/2015 Legea baliatzeaz gain, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikulua baliatzen du adostasunik ez dela behar arrazoitzeko. Hemen transkripzioa:

3.- Ekonomi kontroleko eskumenak dituen sailak erabakiko du diru-laguntzak jaso dituzten zein programetan izango den beharrezkoa zerga arloko eta gizarte-segurantzarekiko obligazioak beteta daudela erakustea onuradunek, laguntza eman eta ordaindu ahal izateko. Era berean, sail horrek erabakiko du aurrekoa zein agiriren bidez egiaztatuko den.

Arauek hala aurreikusten duten kasuetan, eskakizun horien betetzea automatikoki begitatuiko du diru-laguntza programaren erakunde kudeatzaileak, **eta tartean ez da zertan horretarako baimen-emate espliziturik egon, laguntzen edo diru-laguntzen eskatzaileen edo onuradunen aldetik**”.

Ogasun eta Finantza Sailak irizpidea argi eta ezargarri baten beharra du, eta horregatik eskatzen du DBEBren interpretazioa honako kasuetarako:

- a. Ea berariazko adostasuna behar den ala ez Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea ezarri behar zaizkien eta Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen diru laguntzetan.
- b. Ea berariazko adostasuna behar den ala ez Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio publiko batzuek kudeatutako diru-laguntzetan, baldin eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikuluan jasotzen ez diren beste datu batzuk eskatzen badituzte,

## **2. Pertsona batek adierazitako adostasuna eta adostasun horrek beste pertsona batzuk hartzen dituen bere baitan**

Diruz lagungarriak diren zenbait programa kalkulatzeko dira onuradunarekin lotuta dagoen pertsona talde baten errentak kontuan hartuta. Taldea nolakoa den diru-laguntzak arautzen dituen araudian egon ohi da jasota, eta normalean bat etortzen da etxebizitzan erroldatuta dagoen pertsona kopuruarekin.

Hala gertatzen da, adibidez, Eusko Jaurlaritzak burutzen dituen programekin: unibertsitateko edo unibertsitatez kanpoko bekak edo ikastetxeetan onartzeko programak. Halakoetan onuradunaren aitak edo amak eskatzen du laguntza, eta eskabidea baliatuta atzitzen dira bizikidetza unitatea osatzen duten pertsona guztien errentak, araudian zehaztutakoaren arabera. Halakoetan, ez da inon esaten bizikidetza unitateko gainontzeko kideek diru-laguntza eskabidearen berri izan behar dutenik eta haien zerga datuak tratatu egin dituztela jakin behar dutenik.

Kasu honetan, aurrekoetan bezala, administrazio bakoitzak bere erara interpretatzen du adostasuna eskatu beharra dagoen ala ez. Horregatik, honako galdera egin behar diogu DBEBri:

### **Pertsona batek adieraz dezake adostasuna inoren datu pertsonalak atzitzeko, eta horren oinarria diru laguntzaren araudian dagoela arrazoitu?**

Gaur egun hiru foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza elkarreragingarritasun nodo bat ari dira garatzen, administrazioen arteko datu lagatzeak errazteko. Eta horrek prozesuen automatizazioa dakarrenez, irizpide garbiak behar ditugu datu pertsonalak lagatzeko baldintzei dagokienez”.



**BIGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Kontsultatu diguten kasua aztertzeko, hasi behar dugu esaten galderaren helburua dela jakitea ea badagoen oinarri juridikorik foru aldundiek zerga datuak komunikatzeko beste administrazio publiko batzuei, administrazioek behar dituztelako hain eskumenak burutzeko.

Kontsulta idazkiak zehatz jakin nahi du zein den Bulegoak duen irizpidea 39/2015 Legearen 28.2 artikulua ezargarritasunaren gainean, eta ea artikulua hori izan daitekeen oinarri juridikoa tratamendua legezkota izateko, tratamendua beharrezkoa delako interes publikoaren izenean. Oinarri juridiko hori jasota dago Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (6.1 artikulua).

Hasteko, gogora ekarri behar dugu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duela interesdunek eskubidea dutela ez aurkezteko administrazio batek eginak diren agiriak, baldin eta interesdunak adostasuna adierazi badio agiri horiek kontsultatzeko edo ateratzeko; eta adostasuna adierazi delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontraktasun espresua adierazi edo aplikatzeko den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela

Artikulua argia da, eta garbi uzten du zein den interesdunak aurkeztu nahi ez dituen dokumentuen kontsultaren oinarri juridikoa: adostasuna da. Adostasuna adierazi delako presuntzioa egingo da, kontraktasun espresua adierazi ezean edo lege berezi baten faltan. Gure ustez, interesdunaren pasibotasuna oinarri hartuta, adostasuna adierazitzat jotzea edo adierazi delako presuntzioa egitea, ez dator bat Erregelamendu Orokorren 4.11 artikulua xedatutako adostasunaren kontzeptuarekin:

*“Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena”.*

Kontsulta-egileak ondo esan duenez, Erregelamendu Orokorren 32. artikulua oso argigarria da, argi dioelako *“adostasuna baieztapen egintza argi bat izango da”*; eta, beraz, *“isiltasunaren, aurretik markatutako laukitxoaren edo jarduera-ezaren bidez ez da adostasunik adieraziko...”*.



39/2015 Legearen 28.2 artikulua xedatzen dituen baldintzen arabera lortutako ustezko adostasuna ez dator bat Erregelamendu Orokorrekin, ez-egitean oinarrituta dagoelako; eta, beraz, ez du balio aurkeztu ez diren dokumentuak kontsultatzeko oinarri juridiko moduan erabiltzeko. Gure ustez, baieztapen horrek ez du esan nahi artikulua horrek xedatzen duenik lege gaikuntza bat denik hor xedatutakoa; eta adostasunaren oinarri juridikoa baztertu egiten da eta bidea ematen zaio interes publikoaren izenean burutzen den eginkizunei dagokien legitimazioari (Erregelamendu Orokorreko 6.1 e) artikuluan jasotako titulu juridikoa). 39/2015 Legearen 28.2 artikulua argi oinarritzen du kontsulta adostasunean, eta ontzat ematen du ez egotea adostasunaren aurkako berariazko adierazpenik; eta hori Erregelamendu Orokorren aurka dago.

Eta iritzi hori indartzen du Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren Proiektuaren azken xedapenetatik hamabigarrenak; izan ere, 39/2015 Legearen 28. artikuluen 2. eta 3. zenbakiak aldatzen baititu. Hona 2. zenbakiaren lehenen paragrafoaren idazkera berria:

*“28. artikulua (...)*

*2.- Interesdunek eskubidea dute ez aurkezteko administrazio jarduleak lehendik dituen agiriak edo beste administrazioen batek eginak diren agiriak. Administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo bildu ahal izango ditu, interesduna horren aurka agertu ezean. Baina ezin izango da aurka agertu, dena delako agiria eskatzen bada zehapen edo ikuskapen ahalen esparruan”.*

Artikuluaren idazketa berriak ez du adostasuna aipatu ere egiten, eta administrazio jarduleari ahala aitortzen dio aurkeztu ez diren agiriak kontsultatzeko edo biltzeko, interesduna ez bada horren aurka agertzen. Adostasunaren ordean, artikulua argi eta garbi jasotzen du agiriak kontsultatzeko edo eskuratzeko lege gaikuntza, interesdunak tratamenduaren aurka dagoela adierazten ez badu behintzat.

Lege gaikuntza are gehiago indartzen da lege organikoaren bederatzigarren xedapen gehigarrian, honako xedatzen baitu:

*“Edozein baliabide bidez eskaerak egin, eta interesatuek dagoeneko administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaerako datuak jasoko dituen organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuen zehaztasuna egiaztatzeko”.*

Lege organiko berriak zalantza guztiak argituko ditu, lege gaikuntza biak jasoko dituelako 39/2015 Legearen 28.2 artikuluen idazkera berrian eta zortzigarren xedapen gehigarrian. Eta agertzen den zalantza da ea zein izango den trantsizio aldiko oinarri juridikoa Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoa onartu bitartean. Zalantza hori argitzen ahaleginduko gara segidan.

## II

Kontsulta-idazkiak jakin nahi du ea adostasuna behar den Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua ezarri behar zaizkien Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen diru-laguntzetan.

Halakoetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikuluan jasotakoa hartu behar da aintzat:



*“50. artikulua (...)*

*3. Ekonomi kontroleko eskumenak dituen sailak erabakiko du diru-laguntzak jaso dituzten zein programetan izango den beharrezkoa zerga arloko eta gizarte-segurantzarekiko obligazioak beteta daudela erakustea onuradunek, laguntza eman eta ordaindu ahal izateko. Era berean, sail horrek erabakiko du aurrekoa zein agiriren bidez egiaztatuko den.*

*Arauek hala aurreikusten duten kasuetan, eskakizun horien betetzea automatikoki begiztatuko du diru-laguntza programaren erakunde kudeatzaileak, **eta tartean ez da zertan horretarako baimen-emate espliziturik egon, laguntzen edo diru-laguntzen eskatzaileen edo onuradunen aldetik**”.*

Artikulu horrek xedatzen duenez, adostasuna ez da beharrezkoa zerga arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko “arauek hala aurreikusten duten kasuetan”; beraz, zilegi izango zen EAEko administrazio orokorrak eta haren erakunde autonomoek ere adostasuna behar dela aldarrikatzea gaikuntza-titulutzat, laguntza edo diru-laguntzari buruzko araudiak halakorik aurreikusiz gero.

Orain aztertuko ditugu kontsultan egin dizkiguten gainontzeko galderak, hau da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikuluan jasotako zerga datuak barik beste batzuk lagatzeari buruz egindako galdera (zerga arloko datuak betetzen direla egiaztatzea) eta lege horren menpean ez dauden administrazio publikoek kudeatzen dituzten diru-laguntzei buruzko galdera.

Erregelamendu Orokorrak oinarritzko eskubidearen baitan zuen nagusitasuna kendu dio adostasunari; eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren printzipio garrantzitsuena izan bazen ere, aurrerantzean Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluan jasotako gainontzeko oinarri juridikoekin partekatu beharko du berdintasun egoeran bere estatusa. Erregelamendu Orokorraren 6. artikulua zehaztu egiten ditu datu pertsonalen tratamenduak legitimatzen dituzten oinarri juridikoak. Eta, ondorioz, honako baldintzetako bat bete beharko dute datu tratamenduek legezkoak izateko:

- a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.
- c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.
- d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.
- e) Beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko;
- f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarritzko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean.



Azaldutako arau esparruarekin bat, administrazio jarduleak datuak atzitu nahi baditu, Erregelamendu Orokorraren 6. artikuluan jasotako oinarri legitimatzaileetako bat bete beharko du, hau da, interesdunen adostasuna eta interes publikoa edo botere publikoak egikaritzea.

Azken oinarri juridikoari dagokionez, Erregelamendu Orokorraren 6.3 artikulua agintzen du interes publikoa Batasuneko edo Estatu kideen Zuzenbidean jasota egon beharko dela; eta 45. kontuan hartzekoak dio ez dela beharrezkoa izango banakako tratamendu bakoitzak berariazko araua izatea. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 8.2 artikulua ere jasotzen du lege mailako araua behar dela:

*“8. artikulua. Datu tratamendua legezko eginbeharraren izenean, interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean (...)*

*2.- Datu pertsonalen tratamendu bat interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko dela esan ahal izango da, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera, lege mailako arau batek esleitutako eskumen baten ondorioa denean”.*

Interes publikoa dela eta, Datuak Babesteari buruzko 29. artikuluko Lan Taldeak adierazi du oinarri juridiko horrek “ezarpen esparru zabala duela teorian, interpretazio zorrotza eskatzen duela eta garbi identifikatzea, kasuz kasu, zein den jokoan dagoen interes publikoa eta tratamendua justifikatzen duen ahal ofiziala. Ezarpen eremua zabala duenez, 7. artikuluko f) letrarekin (interes legitimoa) bezala jokatu da, eta 14. artikuluan aurka egiteko eskubidea aurreikusi da, tratamendua 7. artikuluko e) letran oinarritzen denerako. Beraz, antzeko berme eta neurri osagarriak ezar daitezke kasu bietan”.

29. artikuluko Lan Taldeak dio aztertzen denean zein den xedapen horiek esparru publikoko organismoetarako duten helmena, baliagarria dela azpimarratzea Batasuneko instituzio, organo eta erakundeek datu pertsonalez egiten duten tratamenduetan ezarri beharreko arauak jasotzen dituen 45/2001 (EE) Erregelamenduak ez duela 95/46 Zuzentarauaren 7 f) artikuluekin alderatzeko moduko xedapenik, hau da, bertako oinarri juridikoen artean ez dago jasota interes legitimoa; eta, gainera, Erregelamenduaren 27. kontuan hartzekoak honakoa dio interes publikoari buruz:

*“(27) Interes publikoko zereginak burutzeko, erkidegoko instituzio eta erakundeek egindako datu pertsonalen tratamenduak instituzio eta erakunde horien kudeaketarako zein funtzionamendurako beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendua barne hartzen du”.*

29. artikuluko Lan Taldeak dioenez, 95/46 Zuzentarauaren xedapen honek —7.e) artikuluko interes publikoa—, orain Erregelamendu Orokorraren 6.3) artikuluan jasota dagoenak, baimentzen du datu tratamenduak egitea, kasu askotan interes publikoaren oinarri juridikoa modu zabalean interpretatuz; baina, hala ez balitz, era batean ala bestean interes legitimoaren antzeko beste oinarri juridiko batekin estalgarriak izan zitezkeen. Kontuan izan behar de interes legitimoa ezin dela ezarri agintaritza publikoek, haien eginkizunak burutzeko egiten dituzten tratamenduetan. Beraz, 29. artikuluko Lan Taldeak dioenez, interes publikoaren oinarrian jartzen diren arrazoiak “agintaritza publikoei nolabaiteko malgutasunez jokatzea ahalbidetzen dien moduan interpretatu beharko dira,



*agintaritzon kudeaketa eta funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko behintzat, egun 45/2001 Erregelamendua interpretatzen den modu berebean”.*

Zerga datuak direnez, [...] Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 92.1 artikulua xedatzen du zerga alorrean ondorioak dituzten datuek izaera erreserbatua dutela, eta halako datuak zerga-administrazioak kudeatu behar dituen zerga edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin izango direla erabili. Hortaz, ezingo zaizkio beste inori utzi, non eta xedea ez den artikuluan zerrendatutako hamazazpi kasuetako bat, tartean d) eta l) letretan jasotakoak.

*“92. artikulua.- Zerga alorrean ondorioak dituzten datuen izaera erreserbatua.*

*1. (...)*

*d) Herri administrazioei laguntzea zerga arloko delituen aurkako eta Europako Batasuneko funts publikoen konturako laguntzen eta diru-laguntzen arloko iruzurraren aurkako eginkizunetan.*

*...*

*l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren”.*

Bi letra horiek jasotzen dute zerga arloko datuek noiz ez duten izaera erreserbatua, eta salbuespen bi horiek ondo ezkontzen dira Erregelamendu Orokorren 6. artikuluan jasotako datu tratamenduen oinarri juridiko birekin. Alde batetik, d) letrak interes publiko bat identifikatzen du, eta zehatz aipatzen du laguntzen eta diru-laguntzen arloko iruzurraren aurkako eginkizuna. Eta Erregelamendu Orokorreko 6.1 e) letrak xedatutakoaren arabera, horrek legitimatu egiten du datuak komunikatzea administrazio jarduleei.

Baina, beste aldetik, l) letrak xedatutako bat dator Erregelamendu Orokorreko 6.1 a) artikuluan aurreikusitako oinarri juridikoarekin: interesdunaren adostasuna.

Ondorioz, zera arloko administrazioa legitimatuta egongo da beste administrazio publiko batzuek eskatzen dizkieten datuak komunikatzeko, datu tratamenduak ondo ezkontzen badira aipatu ditugun oinarri juridikoetako batekin.

### III

Txosten honetan aztertu beharreko azken galdera da ea pertsona batek eman dezakeen bere adostasuna baimentzeko administrazioari beste pertsona baten datuak eskuratzeko. Adibidez, kontsultak aipatzen ditu unibertsitateko edo unibertsitatez kanpoko bekak edo ikastetxeetan onartzeko programak. Halakoetan onuradunaren aitak edo amak eskatzen du laguntza, eta eskabidea baliatuta atzitzen dira bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztien errentak, araudian zehaztutakoaren arabera. Baina, ez da inon esaten bizikidetzaren unitateko gainontzeko kideek diru-laguntza eskabidearen berri dutenik eta haien zerga datuak tratatuko dituztenik.

[...] Foru Aldundiak egindako galdera honek argi uzten du ezinezkoa dela eskatzailearen adostasuna baliatzea hirugarrenen datuak tratatzeko oinarri juridikotzat. Gogora ekarri behar dugu Erregelamendu Orokorren 4.11 artikulua nola definitzen duen zer den *“interesdunaren adostasuna: interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik*



*gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena”.*

Horregatik, bizikidetza-unitate osoaren zerga-datuak eskatzen dituzten laguntzetan ez du balioko eskatzaileak bakarrik adierazitako adostasuna unitate horretako gainontzeko kideen datuak komunikatu ahal izateko; eta, beraz, datu tratamenduak Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan jasotako oinarri juridikoetako baten babesa beharko du.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 23a